

UZTARROZ

Proceso participativo para
un Plan Estratégico Municipal

Udal Plan Estrategiko baterako
parte-hartze prozesua

(2023-2028)



Proiektua Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren bidez egin da. Dirulaguntza, zehazki, bi deialdi hauei dagokie: "Pirinioetako planaren lurralde-eremuan dauden toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia, plan horrekin lotutako ekintzak gauzatzeko 2022an" eta "Toki entitateendako dirulaguntza, Nafarroako Foru Komunitatean herritarren parte-hartzea sustatzeko".



DISEINUA, GAUZAPENA ETA EMAITZAK:

lkerketa eta diagnostikoa:

Nommad Sociedad Microcooperativa
www.nommad.coop
nommad@nommad.coop

Parte-hartze prozesua:

Aise Sociedad Microcooperativa
www.aise.eus
ana@aise.eus

Irudia, diseinua eta maketazioa:

Voilà
www.voilailustracion.es
hola@voilailustracion.es

Begirada datozen 5 urtean pausatuta, Uztarrozeko Udalak Udal Plan Estrategiko berri baten formulazioa bultzatu du.

“ERIN. Elkarrekin erein. Sembrando juntas y juntos”. Horra proiektuari eman nahi izan diogun izena. Erin erronkarieraz erein da. Horrela, hitz horren bidez, Uztarrozeko bizilagunen lana hartu nahi izan dugu aintzat. Izan ere, bakoitzak pixka bat emanez eta, elkarlanari esker, guk nahi dugun etorkizunaren hazia ernamuinduko da, eta herria nahiz prozesua arrakastatsuak izanen dira.

Plana edukiz betetzea bizilagunekin batera egindako prozesuaren emaitza izan da, hainbat hilabetez aritu baitira lanean bai herriari buruzko diagnosian, bai gure Udala datozen urteotan gidatuko duen bide-orri honen prestaketan.

Prozesuan, guztiok eskaini dugu gure denbora, guztiok egin dugu ahalegina, ideia mota anitx bateratu ditugu, guztion arteko pentsamendua jarri dugu guztion ongiaren zerbitzuan eta une atseginak ere bizi izan ditugu elkarrekin. Bada, orain, Udalak eta denon arteko ondasunek badute herriak berak zehaztutako bide-orri bat. Gure esku dago, beraz, huraxe gauzatzea.

Zorionak Uztarroze!

Udalbatza / Ekiderra Udal taldea





0. Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Plana prestatzeko prozesua	6
2.1. Prozesuaren deskribapena	6
2.2. Prozesuaren helburuak	7
2.3. Bultzada, koordinazio eta jarraipenerako egitura	7
3. Azterketa	8
3.1. Diagnostikoaren metodologia	8
3.2. Parte-hartze prozesuaren jarduketak	9
3.3. Azterketaren guneak	11
3.4. Parte-hartzearen lagina azterketa estrategikoan	11
3.5. Komunikazio Plana	13
3.6. Uztarrozeko diagnostikoa 2022	13
1. Ingurumena, paisaia eta ondarea	13
2. Lurraldea eta mugikortasuna	18
3. Hirigintza eta azpiegiturak	20
4. Biztanleria eta gizarte egituraketa	25
5. Etxebizitza	29
6. Erakundeak, ekipamenduak eta zerbitzuak	30
7. Ekonomia eta kontsumoa	32
3.7. Uztarrozerako erronkak	35

4. Planaren formulazioa	36
4.1. Plan Estrategikoa formulatzeko metodologia	36
4.2. Parte-hartze prozesuaren jarduketak	37
4.3. Plana formulatzeko ardatzak	37
4.4. Parte-hartzearen lagina Planaren Formulazioan	38
4.5. Komunikazio Plana	39
5. Uztarroze 2023-2027	40
5.1. Plan estrategikoaren egitura	40
5.2. Eginkizuna eta ikuspegia	41
5.3. Balioak	41
5.4. Helburuak eta arlo estrategikoak	42
5.5. Arlo, ildo eta ekintza estrategikoak	43
5.6. Ekintza operatiboak	46
5.7. Antolamendua eta egitura	51

1.

Sarrera

Uztarroze Nafarroako Pirinioetako eskualdean dago eta iparraldean dagoen herria da Erronkaribarren. Aberastasun handia du ingurumenari eta ondareari begira eta, Erronkaribarko beste herri batzuetan bezala, gero eta jende gutxiago bizi da eta biztanleria pixkanaka zahartzen ari da.

Aspalditik honat, udala udal elkarteen eskuetan dago, bizilagunek osatuak, guztiak ere gogotsu beren karguen ardura hartzeko. Aldi berean, auzolanaren kulturari eutsi zaio, bai eta herritarren parte-hartzeari ere.

Egoera hori izanik, Udala osatzen duen jendeak prozesu bat egiteko aukera ikusi du, datozen 5 urteotarako udalaren ekintzak zer jarduketara ildok gidatuko dituzten zehazte aldera. Horretarako, proiektu bat garatzea erabaki da, udalerraren analisi estrategiko batetik abiatuz, Udal Plan Estrategiko (UPE) bat denon artean formulatu eta abiarazteko parada izateko.

Prozesu honen bitartez, Uztarroze inguruan diharduten eragileen egituraketa eta inplikazioa sustatu nahi dira, betiere lurraldearen garapenerako funtsezkoak diren eragileen parte-hartzean interes berezia pausatuz. Funtsezko eragileak erakundearen sarea, gizarte sarea, sare ekonomikoa eta udalerriko biztanleria dira. Diagnostiko partekatutik abiatzeak eta etorkizuna elkarrekin proiektatzeak bultzagarri izan nahi dute Uztarrozek aitzina egin dezan eta herrian aldaketa eragiteko.

Agiri honetan, bada, proiektu hori dago azaldua, bai eta prozesua eta ondorioak ere, eta halaber, Uztarrozerako Udal Plan Estrategikoa (2023-2027) jaso du.

2.

Plana prestatzeko prozesua

2.1. Prozesuaren deskribapena.

Maiatzetik azarora, Erin proiektua garatu da. Gogoeta prozesu bat egitea izan du helburu, udalerriaren azterketa estrategiko bat abiaburu harturik, ondotik denon artean Udal Plan Estrategiko (UPE) bat formulatu eta garatzeko aukera izateko. Proiektuak bi etapa izan ditu:



2.2. Prozesuaren helburuak.

Honatz proiekturako zehaztuak zeuden helburuak:

- Uztarrozeko gizartea, ekonomia eta ingurumena zertan diren aztertzea.
- Udalerriaren garapenarekin loturiko entitateak eta eragileak atzeman eta aztertzea.
- Lurraldeko gobernantza eta parte-hartze ereduak aztertzea.
- Parte-hartzean oinarrituriko gogoeta prozesuak sortzea udalerriaren etorkizunaz.
- Lurraldean aldaketa eragiteko behar diren prozesuen abiaburua, helmuga eta galgak nahiz eragileak identifikatzea; horren bidez, Uztarrozerako Plan Estrategiko bat diseinatu eta garatzeko.
- Elkarlana eta lurralde egituraketa sustatzea.
- Uztarroze datozen 5 urteotan garatzeko udal estrategiak zehaztea.

2.3. Bultzada, koordinazio eta jarraipenerako egitura.

Aurre-diagnostikoan, prozesua bultzatzen, koordinatzen eta haren jarraipena egiten lagundu zezakeen parte-hartze egitura bururaino taxutu zen. Horrela, talde teknikoaren, eta koordinazio eta jarraipen batzorde baten arteko koordinazioa ezarri zen. Bestalde, Nommad-eko eta Aise-ko arduradunak izan dira Talde Teknikoan kide, eta udaleko hainbat zinegotzi eta alkatea, batzordekide.

Egitura baliagarria izan da prozesuan zehar informazioa emateko eta ekintzak koordinatzeko.



3.

Azterketa

3.1. Diagnostikoaren metodologia.

Prozesuaren lehen etapa hau bi fasetan egin zen.

1. Aurre-diagnostikoa.

Hasierako fase bat izan da, aldez aurreko arakatze-analisi bat, udalerriaren azterketa estrategikorako prozesua garatzeko erronkak eta proposamenak identifikatzeko, ondoren Uztarrozeko egoerara doitutako prozesuaren faseen diseinu bat egite aldera.

2. Fasea. Parte-hartzean oinarritutako diagnostiko estrategikoa.

Ondoko faseak deskribapenean eta azalpenean oinarritutako azterketa ekarri du, Uztarrozeko egoera parte-hartzean oinarriturik diagnostikatzeko xedez.

Azterketa hau egiteko, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa aukeratu zen, bildutako datuen izaeragatik eta erabilitako teknika eta tresnen tankeragatik. Indukzio bidezko hurbilketa horri esker, ikerketaren diseinu malgua egin da, ikerketa doitzeko eta aldatzeko aukera amanda, azterketa prozesuak aurrera egin ahala.

3.2. Parte-hartze prozesuaren jarduketak.

1. Koordinazio bilerak.

Koordinazio eta jarraipen bilerak Uztarrozeko Udalarekin.

2. Azterketa eta dokumentazio lana:

Erreferentziadokumentalen bilaketa eta identifikazioa eginda (azterlanak, argitalpenak, proiektuak, administrazio-erregistroak, txostenak, aktak, etab.), hots, azken urteotan Uztarrozeri buruzko informazio garrantzitsua zeukatenak. Erreferentzia dokumentalen azterketa eta laburpen bat egin zen, lurraldearen testuingurua eta bilakaera interpretatzeko esparru orokor bat eraikitze aldera.

3. Elkarrizketa erdi egituratuak funtsezko eragileei.

Lau talde-elkarrizketa funtsezko eragileei 1. fasean zehar. Elkarrizketak Udalarekin batera zehaztu ziren, Uztarrozeri buruzko ikuspuntu ezberdinak dituzten intereseko taldeak aukeratuz. Horretarako, lurraldearen dibertsitatearen zati bat bilduko zuten lagin-profil orokorrak ezarri ziren. Honatx intereseko taldeak:

- Udala.
- Uztarrozeko gazteak.
- Alkate eta zinegotzi ohiak.
- Herriko pertsona aktiboak.

4. Inkesta.

Uztarrozeko biztanleria guztiari galdetegi bat egin zitzaion, online edo aurrez aurre (etxez etxe banatu zen), bai eta lurraldeko funtsezko eragileei ere (online formatuan).

- Laginaren unibertsoa: 150 pertsona.
- Lagina: 77 pertsona.
- Konfiantza maila: % 95.
- Errore tarte edo konfiantza tarte: % 8.

5. Talde dinamikak edo tailerrak:

Talde dinamikak edo tailer parte-hartzaileak egin dira, informazioa emateko, erkaketa eta bateratze lana egiteko eta eztabaidatzeko. Espazio aproposak izan ziren Uztarrozeko jendeari gogoeta estrategikoari buruzko informazioa emateko eta, era berean, azterketan bildutako informazioa guztiz zehaztu, ñabartu eta ixteko (azterketa dokumentalaren datuak, elkarrizketak, inkestak, bai eta tailer parte-hartzaileak berak ere).

Hiru parte-hartze gune egin ziren:

- Talde tailer bat, Udalarekin batera parte-hartze gunea ezartzeko.
- Diagnostiko partekatuko bi talde tailer.

6. Prozesua hedatu eta iragartzeko ekintzak

Parte-hartze prozesuak komunikazio plan bat barnebildu du prozesuaren eta egin diren ekintzen berri emateko, bi norabideko kanalak egokitze eta, haien bidez, informazioa, pertzepzioak eta proposamenak biltzeko eta, azkenik, bildutako informazioa eta emaitzak azaltzeko.

Ibilbidea: faseak eta jarduketak (parte-hartzaileak eta komunikaziozkoak)

1. UZTARROZEKO AZTERKETA ESTRATEGIKOA

1. AURRE-DIAGNOSTIKOA



Koordinazio bilerak
Uztarrozeko Udalarekin.

Lau elkarriketa erdi egituratu funtsezko eragileei:

Udala.
Uztarrozeko gazteak.
Alkate eta zinegotzi ohiak.
Herriko pertsona aktiboak.



Azterketa eta dokumentazio lana

Prozesua hedatu eta iragartzeko ekintzak:
Prozesuaren ikusizko identitatea prestatzea



2. DIAGNOSTIKOA



Inkesta 1 online edo aurrez aurre lurraldeko biztanle guztiei eta funtsezko eragileei.

Unibertsoa: **150** pertsona.
Lagina: **77** pertsona.
Konfiantza maila: **95%**.
Errore tarte: **8%**.



Tailer parte-hartzaile 1, Udalarekin.



Diagnostiko partekatuko 2 talde tailer.

Prozesua hedatu eta iragartzeko ekintzak:



Prozesuaren **kartelak** herriko gune erreferenteetan (prozesua hasteko 20 kartel).

Udal-bandoa.



Mezularitza mugikorrera egokitzea: whatsapp eta telegram.

Emailinga Udaletik. Prozesuaren informazioa hedapen-zerrendara igortzeko.



Hedabideendako **prentsa-oharra**.



Foiletoa etxez etxe banatzea, prozesuaren oinarritzko informazioarekin eta paperezko **galdetegia** (100 foileto eta 90 galdetegi).



2. ETAPA: UZTARROZEKO UDAL PLAN ESTRATEGIKOA



5 parte-hartze tailer biztanleekin.

1

Diagnostikoa itzultzea eta erkatzea

2

Etorkizuneko kontakizuna (mugarriak, balioak, galgak eta eragileak)

3

Arlo, ildo eta ekintza estrategikoetarako proposamenak

4

Ikuspegia, eginkizuna eta balioak proposatzea, eta proposamen gehiago Planerako biltzea

5

Planaren erkaketa, adierazleen berrikuspena eta lehen urterako lehenetasunak ezartzea.



Sistematizazio lana



Koordinazio eta jarraipen ekintzak



Aurkezpen jardunaldia

Prozesua hedatu eta iragartzeko jarduketak



Prozesuari buruzko **kartelak** herriko toki adierazgarrietan (bigarren etaparen hasierako 20 kartel).

Udal bandoa.



Mezularitza mugikorrera egokitzea: whatsapp eta telegram.



Hedabideendako **prentsa-oharra**.



Astero mezuak igorri dira mezularitza mugikorraren bidez parte-hartze saioen eguna eta ordua **oroitarazteko**

3.3. Azterketaren guneak.

Prozesuak udalerriarekiko zazpi azterketa gune arakatzea izan du ardatz:

Ingurumena, paisaia eta ondarea.

Ingurune fisikoa, topografia, hidrografia, klima, ingurumena eta biodibertsitatea, historia, ondare materiala eta inmateriala, paisaia.



Lurraldea eta mugikortasuna.

Lurraldea, garraioa, mugikortasuna, irisgarritasuna.



Hirigintza eta azpiegiturak.

Hiri-egitura, espazio publikoa, argiteria, energia, ura, komunikazioak.



Biztanleria eta gizarte egituraketa.

Biztanleria, nortasuna, kultura, taldeak eta elkarteak, gizarte kohesioa, parte-hartzea.



Etxebizitza.

Eraikinak, salmenta eta alokairua, birgaitzea, berrikuntza.



Erakundeak, ekipamenduak eta zerbitzuak.

Erakundeak, baliabideak, ekipamenduak, zerbitzuak, jarduerak.



Ekonomia eta kontsumoa.

Jarduera ekonomikoa, enplegua, kontsumoa.



3.4. Parte-hartzearen lagina azterketa estrategikoan.

Laginaren datuak, guztira.

Parte-hartzaileen profila eta haiek parte hartu duten uneak “aldi edo parte-hartze” gisa agertzen dira.

Hainbat jarduketatan (elkarrizketa, tailer parte-hartzailea, etab.) parte hartzen duten pertsona batzuen profila errepikatu daitekeenez, eta galdetegian modu anonimoan parte hartu ahal izan dutenez (horrek ez digu aukerarik ematen inkestatutako pertsonak identifikatzeko), nahiago dugu ateratzen den kopurua “aldi edo parte-hartze” gisa kontabilizatzea. “pertsona edo parte-hartzaile” gisa baino.

Zenbat aldiz, guztira: **146 aldiz.**

Banaketa sexu/generoaren arabera:

- Emakumeak: 102 aldiz.
- Gizonak: 44 aldiz.
- Ez-bitarra: aldi batez.

Jarduketak:

- 4 talde-elkarrizketa (F1): 21 aldiz.
- Esparru parte-hartzailea zehazteko tailer 1 (F1): 4 aldiz.
- Inkesta 1 biztanleriari eta funtsezko eragileei (F2): 77 aldiz.
- Diagnostikorako 2 parte-hartze tailer (F2): 36 aldiz.
- 2 bilera Udalarekin (F1 eta F2): 8 aldiz.

Banaketa adinaren arabera:

- 15-19 urte: 0 aldiz.
- 20-29 urte: 6 aldiz.
- 30- 39 urte: 19 aldiz.
- 40- 49 urte: 20 aldiz.
- 50- 59 urte: 27 aldiz.
- 60- 69 urte: 46 aldiz.
- 70-79 urte: 23 aldiz.
- 80->: 5 aldiz.

Parte-hartzearen lagina Planaren azterketa estrategikoan

146

ALDIZ


BANAKETA SEXU/GENEROAREN ARABERA:



JARDUKETAK:



BANAKETA ADINAREN ARABERA:



3.5. Komunikazio Plana.

Parte-hartze prozesuak komunikazio plan bat barnebildu du prozesuaren eta egin diren ekintzen berri emateko, bi norabideko kanalak egokitze eta, haien bidez, informazioa, pertzepzioak eta proposamenak biltzeko eta, azkenik, bildutako informazioa eta emaitzak azaltzeko.

Prozesua hedatu eta iragartzeko ekintzak.

Fasea. Aurre-diagnostikoa.

- Prozesuaren ikusizko identitatea prestatzea.

Fasea. Diagnostiko estrategiko partekatua.

- Prozesuaren kartelak herriko gune erreferenteetan (prozesua hasteko 20 kartel).
- Udal-bandoa.
- Mezularitza mugikorrera egokitzea: whatsapp eta telegram.
- Emailinga Udaletik. Prozesuaren informazioa hedapen-zerrendara igorri duen posta elektronikoa.
- Hedabideendako prentsa-oharra
- Foiletoa etxez etxe banatzea, prozesuaren oinarritzko informazioa azaltzeko eta paperezko galdetegi (100 foileto eta 90 galdetegi).



3.6. Uztarrozeko diagnostikoa 2022.

Uztarrozeko 2022ko parte-hartze diagnostikoak udalerriaren pertzepzioari buruzko datuen eta ideia nagusien laburpen bat bildu du, azterketa dokumentalaren bidez eta bileren, elkarrizketen, galdetegiaren, talde espazioen eta abarren emaitzak aztertuz ateratakoak.



INGURUMENA, PAISAIA ETA ONDAREA.

(Ingurune fisikoa, topografia, hidrografia, klima, ingurumena eta biodibertsitatea, historia, ondare materiala eta immateriala, paisaia).

Uztarroz 58,19 Km2 da luze-zabaleran (58.194.400 m2). Iparraldean Frantzia dauka mugakide; Pirinioetako ardatza da berezko muga. Ekialdean, Izaba du mugakide; mendebaldean, Otsagabia, Itzaltzu eta Ezkaroze, eta hegoaldean, Erronkari eta Bidankoze.


Udalerria ingurumenari eta paisaiari begira interesa duten hainbat gunez eta ibilbidez dago inguratua. Uztarrozen badira naturgune babestuek: Larrondoa-Lakartxela KBE (Kontserbazio Bereziko Eremua, KBE) eta "Surioko Pinuak" monumentu naturala, Burgisamendian, Mintxate.

Honatz udalerriko kultur eta arkeologia ondarkerik nabarmenena: Santa Engrazia Eliza, Uztarroze errearen gaineko zubia herriko Zabalea auzoan, Patroziñioko Amaren Baseliza, Uztarroze errearen gaineko zubia Auritz-Izaba NA-140 errepideko 51. kilometroaren parean, eta beste eraikin batzuk, hala nola Udaletxea, Zuberrieta Erdi Aroko zubia, Pilart etxea, Julian-Marco etxea, Krutxaga etxea, etab.

Hirigunea 869 metroko garaieran dago. Altuerarik apalena 810 m-an dago (Mintxate errekar Uztarroze errearekin bat egiten duen gunea). Altuerarik gorena, berriz, 1.922 m (Otxogorri, udalerriaren iparraldean, Pirinioetan edo Bortuetan).

Köppen sailkapenaren arabera, Uztarrozek klima “ozeanikoa” izatea du ezaugarri, Pirinioetako eskualde osoaren antzekoa. Horrenbestez, prezipitazio anitx izaten dira urte guztian eta, neguko hilabeteetan, prezipitazio gehiago izaten dira elurretan eta izotza edo karroina izaten da. Urteko euria, bana beste, 1.345,1 mm izaten da eta batez besteko tenperatura 11,3°C da.

BATEZ BESTEKO TENPERATURAK ETA PREZIPITAZIOAK UZTARROZEN



(+)

INDARGUNEAK

1. Lurraldeak aberastasun handia dauka natur baliabideetan eta baliabide historikoetan, eta ingurumen eta paisaia intereseko gunez eta ibilbideez inguratua dago.
2. Kalitate handia du ingurumenari begira.
3. Intereseko elementuak ditu historiari eta ondareari begira, baita ondare immaterial zabala ere (jaiak, ingurunearen ezagutza, antzinako lanak, etab.).
4. Hiriguneak ezaugarri bereziak ditu: hiri eta eraikuntza arloko morfologia.
5. Herritarrek ingurunea baloratzen dute gehien, natur ingurunea, paisaia, lasaitasuna eta bizitzaren kalitatea.
6. Inguruneak aisialdiko jarduera anitx ahalbidetzen ditu.

AHULEZIAK


1. Herriaren historia eta ondareari buruzko informazioa ez dago eskura.
2. Ibai ibilgua landaretzaz beterik dago herrian.
3. Oihan-masa eta landaretzaz handiegia dago herritik oso hurbil. Mendia ez dago oso zaindua. Sute arriskua dago.
4. Ez daude arauturik mendiko larreak eta ehiza.
5. Jendearen utzikeria mendietan, ezjakintasunaren ondorioz.
6. Neguko klima hotzagoa eta muturragokoa da Nafarroako beste leku batzuetan baino.
7. Bidexkak ez daude ongi zainduta.

(-)


UZTARROZE INGURUKO UDALERRIAK.



UZTARROZE. NATURGUNEAK ETA HERRI-LURRAK.




Uztarroze (2023-2028).




UDALERRIKO ETA INGURUKO ERREPIDEAK




UZTARROZEKO UDALERRIA. BIDEXKAK**JOAN-ETORRIAK UZTARROZETIK KANPORA.**

Iturria: Erin inkesta.

**JOAN-ETORRIEN MAIZTASUNA.**

Iturria: Erin inkesta.

ERANTZUNA	ERANTZUNA	RATIOA
Astero	17	%29,8
Egunero	13	%22,8
Noizbehinka urtean barna	10	%17,5
Aste hainbat egunez	6	%10,5
Beste (zehaztu)	4	%7
Hilabetero	4	%7
Hamabostean behin	3	%5,3
Hiruhilekoan behin	0	%0
Ez naiz Uztarrozetik ateratzen	0	%0





LURRALDEA, MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA.

(Lurraldea, garraioa, mugikortasuna, irisgarritasuna)

Uztarrozeko udalerria Nafarroako Pirinioen eskualdean kokaturik dago. Erronkaribarko herririk iparraldekoena da. 104 km-ra dago Iruñetik. Auritz-Izaba NA-140 errepideak hego-ekialdetik ipar-mendebaldera zeharkatzen du. Udal dermioaren mendebaldean Lazako mendatea dago (1.016 m.).

Uztarroze erreka tarte luzean doa errepidearen ondoan. Udalerriko ur ibilgurik garrantzitsua da eta Ezka ibaia isurtzen ditu urak, Izaban. Uztarrozeko ipar-ekialdean eta hego-mendebaldean dauden mendi-hegaletan badira ura ibaira isurtzen duten hainbat erreka.

Udalerrian badira bidexka anitx; gehienbat, azienda bideak dira, Uztarroze eta herri mugakideak lotzeko. Udalerria zeharkatzen duten

ibilbide nabarmenen artean, hiru ibilbide handi daude

GR11 Pirinioetako Bidexka, GR13 Erronkariarren Errege Ardibidea eta GR-321 Kontrabandisten Bidea, eta SL-NA 71 herribidea, Uztarrozeko txokoak, alegia.

Uztarrozeko biztanleriak gehienbat garraio pribatua erabiltzen du joan-etorriak egiteko (inkestatuen % 92,21). Autoarekiko mendekotasuna handia da, topografiaren eta herrira iristeko zailtasunen ondorioz. Joan-etorriak, halaber, erosketak egiteko (% 27,7), lanera joateko (% 22,3) edo beste herri batzuetan gestioak eta zerbitzuak egiteko izaten dira.

Nafarroako estatistika Institutuaren arabera, udalerrian 131 ibilgailu pribatu zeuden 2019an. Haietarik, 76 autoak ziren; 6, motozikletak; 43, furgonetak eta kamioiak, eta 6, atoiak, erdi-atoiak edo beste ibilgailu batzuk.

Udalerriko bide segurtasuna handia da. Ez da zauriturik, zehapenik eta arau-hausterik izan 2014tik 2020ra (ez dago 2019ko daturik).

Autobus linea batek Uztarroze lotzen du Iruñearekin 2 ordutan. Goizean abiatzen da (Uztarroze-Iruñea) eta arratsaldean itzuli (Iruñea-Uztarroze).



(+)

INDARGUNEAK

1. Erronkaribar Iruñearekin bi ordutan lotzen duen linearen autobus-geraleku bat dago. Autobusa goizean joaten da Iruñera (Uztarroze-Iruñea) eta arratsaldean, berriz, itzultzen da (Iruñea-Uztarroze).
2. Uztarrozek oihan bide eta pista anitx ditu, bai eta abelbide eta mendi bide anitx ere. Haien artean, bi GR ibilbide Handi (GR11 Pirinioetako Bidexka, eta GR13 Erronkariarren Errege Ardibidea). Halaber, badira hainbat herribide.



(-)

AHULEZIAK

1. Uztarroze errepidez bakarrik da irisgarria. Iruñetik urrun dago (1h 22') eta bi errepide dira Erronkaribartik Iruñerrira joateko: NA-214 (Coronas gaina) eta NA-137 (Burgiko Arroila). Bi errepideak ere latzak dira gidatzeko.
2. Herrira joateko NA-140 errepidea ere latza da gidatzeko, ez du bazterbiderik, eta galtzadak ez du behar bezalako zabalerarik bi erreizateko (bat noranzko bakoitzean).
3. Uztarrozetik kanpora egiten diren joan-etorri gehienak ibilgailu pribatuan egiten dira (% 92,21). Mendekotasun handia dago autoarekiko, topografiaren eta herrira iristeko zailtasunen ondorioz. Joan-etorriak, halaber, erosketak egiteko (% 27,7), lanera joateko (% 22,3) edo beste herri batzuetan gestioak eta zerbitzuak egiteko izaten dira.
4. Ibilgailu pribatuarekiko mendekotasunak eraginik, badira arazoak aparkatzeko, igarotzeko eta espazio publikoa okupatzeko udalerraren hiri-egituran.
5. Autorik ez duten pertsonak (adinekoak, haurrak eta gazteak) edo gidabaimenik ez dutenak ezin dute gidatu eta garraio publikoaren edo beste bizilagun batzuen mendean daude udalerritik ateratzeko.
6. Herria NA-140 errepideak zeharkatua dago 0,78 km-tan, eta ibilgailu anitxek abiadura handian gurutzatzen dute errepide tarte hori.
7. Garraio publikoa ez da praktikoa egun duen goizeko eta arratsaldeko ordutegitik kanpo.
8. Garraio publikoa ez da zuzenean iristen herritarrendako zerbitzu batzuk dauden lekuetara (mediku espezialista, enplegu bulegoa, etab.).
9. Herriaren orografia dela eta (desnibelak eta malda latzak), mugikortasun arazoak dituen jendearendako tarte lau eta irisgarri bakarra NA-140 errepidea da, baina ez du bazterbiderik.



HIRIGINTZA ETA AZPIEGITURA.

(Hiri egitura, espazio publikoa, argiteria, energia, ura, komunikazioak)

Uztarroze mendiko hegala eguzkitsuan dago kokaturik. Karrikak meharrik dira, maldak latzak dira eta plaza edo espazio ireki gutxi dago. Hirigunetik kanpo, ez dago beste kokagunerik, lurraldean barreiaturik dauden eraikin bakartuak eta isolatuak izan ezik, guztiak ere azpiendarako edo nekazaritzarako.

Uztarroze errearen bazterrean kokatua dago, mendi-hegalean. Horregatik, ederki ikusten dira inguruko mendi bazterrak eta paisaiak. Udalerriaren goialdean, badira hainbat espazio edo begiratoki paisaia ez urbanoa ikusteko. Udalerria ingurumenari nahiz paisaiari begira interesa duten hainbat naturgunez eta ibilbidez inguraturik dago.

Hiri-egitura trinkoa da, topografiara egokitua. Karrika sarea maldari doitua dago; zenbait lekutan, mailaka. Hirigunea lau auzok osatua dago. Hauek dira: Irigoine, Espandoia, Iribarne eta Zabalea.

Herriaren topografia malkartsuaren ondorioz, hiri morfologia oso konplexua da, malda, patar eta desnibel handiak baitira eta, ondorioz, herriko zenbait tokitan eta etxebizitzatan badira irisgarritasun arazoak (zailtasunak hala oinez iristeko, nola ibilgailuetarako eta makineriarako). Neguko hilabeteetako elurteek zailtasunak areagotzen dituzte, bai eta herriko karrikak elurrik eta izotzik gabe garbi mantentzeko arazoek ere.

Karriken trazatuak eta sekzio-alaketak zailtasunak sortzen dituzte ibilgailuz igarotzeko eta aparkatzeko. Zailtasunik ere bada ibilgailuz etxe batzuetaraino bertaraino iristeko eta, haietara, oinez bakarrik joan daiteke.

Hirigintza mailan eskura dagoen informazioa oso eguneratua dago, udalerriaren Udal Plan Orokorra 2018koa baita.

Uztarrozek behar diren oinarritzko azpiegitura guztiak dauzka eskura toki garapenerako, eta gainera, onki daude: telekomunikazio zerbitzuak (telefonoa eta internet), ur hornidura, saneamendua, linea elektrikoetarako instalazioak, argi publikoak, herriko karriketako zoladura, etab.

Uraren kudeaketari loturiko azpiegitura optimizatu behar da (ur harrera, bi ur-biltegi, euri-uren sarea, hondakin-urak, etab.), ur hornidura urte osoan eta epe luzera ziurtatzeko, euri-uren sarean diren iragazpenak atzemateko eta bi ur-biltegiak herriaren beharretarako erabili ahal izateko (giza hornidura, baratze ureztaketa, suteen prebentzioa, etab.).

Autoak aparkatzeko hiru eremu daude: 2 aparkaleku egokitu dira erreka ondoan, eta bat herriaren goialdean. Halaber, zamaketa lanetarako leku bat badago Irigoine auzoan. Dena dela, jaiegunetan, oporraldietan eta udako hilabeteetan, ez da behar adina leku autoak aparkatzeko, ez hirigunean, ez hiru aparkatze eremuetan.



(+)**INDARGUNEAK**

1. Uztarroze izen bereko erreken ertzean dago kokaturik, mendi-hegalean. Horregatik, ederki ikusten dira inguruko mendi bazterrak eta paisaiak.
2. Herriak Nafarroako Pirinioetako hirigune bereizgarria du eta ongi kontserbatua dago.
3. Hirigunea multzo batean dago eta oinez egiteko moduko ibilbide laburrak ditu.
4. Herriaren morfologia konplexuak aberastasun eta dibertsitate handia eragin du eraikinetan eta baratzeetan i, bai eta hiri espazioan ere.
5. Herriaren goialdean, badira espazioak edo begiratokiak paisaia ez urbanoa ederki ikusteko. Udalerria ingurumenari eta paisaiari begira interesa duten hainbat naturgunez eta ibilbidez inguratua dago.
6. 3 aparkatze eremu daude: 2, erreka ondoan egokituak, herrian sartzeko bi zubien ondoan, eta 1, herriaren goialdean. Halaber, bada zamaketa lanetarako gune bat Irigoine auzoan.
7. Oro har, badira toki garapenerako behar diren oinarriak azpiegiturak, eta gainera, onki daude: telekomunikazio zerbitzuak (telefonoa eta internet), ur hornidura, saneamendua, linea elektrikoetarako instalazioak, argi publikoak, herriko karriketako zoladura, etab.
8. Herriak espazio publiko lau txikiak ditu: plaza, udaletxearen eta elizaren arteko eremua (antzinako kanposantua), haur parkea (frontoiaren parean), eta jarlekuak erreka eta errepede bazterrean (Iribarne auzoan).
9. Herrian, bada bainu-eremu bat (igerileku naturala), erreka ura bildu egiten baita zubietako batean udako hilabeteetan.

(-)**AHULEZIAK**


1. Herriaren topografia malkartsuaren ondorioz, hiri morfologia oso konplexua da, malda, patar eta desnibel handiak baitira eta, ondorioz, herriko zenbait tokitan eta etxebizitzatan badira irisgarritasun arazoak (zailtasunak hala oinez irteteko, nola ibilgailuetarako eta makineriarako).
2. Karriken trazatuak eta sekzio-aldaketak zailtasunak sortzen dituzte ibilgailuz igarotzeko eta aparkatzeko.
3. Zailtasunik ere bada ibilgailuz etxe batzuetaraino bertaraino irteteko eta, haietara, oinez bakarrik joan daiteke.
4. Hirigunean aparkatzeko espazioak eta 3 aparkatze eremuak ez dira aski jaiegunetan, oporraldietan eta udako hilabeteetan.
5. Herri barneko aparkatze espazioak ez daude arautuak eta seinalizatuak; ondorioz, espazio publikoa ez da beti ongi erabiltzen.
6. Elementu batzuek hiri espazioa eta hiri paisaia desitxuratzen dituzte: auto aparkatuek, zabor edukiontzien, erabiltzen ez diren hiri lurzati abandonatuek.
7. Udalerriko telekomunikazio zerbitzuak hobetu behar dira: herriko zenbait tokitan ez dago telefonia mugikorrerako estaldurarik edo oso txarra da; eta zenbait etxetan, zailtasunak dituzte interneteko konexiorako.
8. Uraren kudeaketari loturiko azpiegitura optimizatu behar da (ur harrera, bi ur-biltegi, euri-uren sarea, hondakin-urak, etab.), ur hornidura urte osoan eta epe luzera ziurtatzeko, euri-uren sarean diren iragazpenak atzemateko eta bi ur-biltegiak herriaren beharretarako erabili ahal izateko (giza hornidura, baratze ureztaketa, suteen prebentzioa, etab.).
9. Neguko hilabeteetan, badira zailtasunak herriko karrikak elurrik eta izotzik gabe garbi mantentzeko.
10. Plaza eta erreka nahiz errepede bazterreko jarleku eremua (hau da, topaketarako erabiltzen diren espazio publikoetako bi) anitzetan ezin dira erabili, autoak aparkaturik daudelako.



ORTOARGAZKIA
ORTOFOTO

E 1:4000

0 100 200 m



ZORU KLASIFIKAZIOA CLASIFICACIÓN DEL SUELO

E 1:4000

0 100 200 m

LEGENDA | LEYENDA

- Hirigunea | Núcleo urbano
- Hidrografia | Hidrografía
- Errepide nagusia | Carretera principal
- Dauden eraikinak | Edificación actual

ANTOLAMENDUA | ORDENACIÓN

- Hiri-lurzoru finkatua
Suelo urbano consolidado
- Hiri-lurzoru finkatu gabea
Suelo urbano no consolidado
- Lurzoru ez urbanizagarria
Suelo no urbanizable

BABESTUTAKO ERAIKINAK EDIFICIOS PROTEGIDOS

- ☆ 1.Maila | Grado 1
- ★ 2.Maila | Grado 2
- ★ 3.Maila | Grado 3

AUZOAK | BARRIOS

- ① Espandoia
- ② Iribarne
- ③ Irigoine
- ④ Zabalea

ZORU ERABILERAK USOS DEL SUELO

E 1:4000

0 100 200 m

LEGENDA I LEYENDA

PRIBATUA I PRIVADO

- Egoitzaldea | Residencial
- AT Ostatu turistikoa | Alojamiento turístico
- Jarduera ekonomikoak
Actividades económicas
- Baratza. Lurzoru libre pribatua
Huerta. Suelo libre privado
- Artegiak eta biltegiak
Establo aprisco y almacén
- Aurri-egoeran dauden eraikinak | Ruine
- Ekipamendu pribatuak
Equipamientos privados

PUBLIKOA I PÚBLICO

- Eremu berde publikoa
Zona verde pública
- Aparkalekua | aparcamiento
- Oinezkoen bidea | Itinerario peatonal
- Ibilgailuen bidea | Viario rodado
- Na-140 errepidea (Auritz-Izaba)
Carretera NA-140 (Burguete-Isaba)
- Ekipamendu publikoak
Equipamientos públicos





BIZTANLERIA ETA GIZARTE EGITURAKETA.

(Biztanleria, identitatea, kultura, taldeak eta elkarteak, gizarte kohesioa, parte-hartzea)

Uztarroze etengabe ari da jendez husten eta zahartzen. Jendez husteko arriskuan dagoen udalerrietako bat da Nafarroan ("muturreko arriskuan" dagoen udalerritzat dago katalogatua), Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren arabera (2021).

Udalerrian 150 lagun daude erroldaturik (2021) eta, haietarik, 30etik 50 pertsona bitartera bizi dira urte osoan herrian. Zaila da kalkulatzeko zenbat pertsona dauden udalerriari loturik. Izan ere, % 46,8k dio Uztarrozen erroldaturik daudela eta, % 53,2k, berriz, beste udalerri batean. % 23,4k erran du bere ohiko bizilekua Uztarroze dela. % 76,6k, berriz, erran du beste udalerri batean bizi dela.

Uztarrozeko biztanleria-piramidea atzeragarria da. Hau da, oinarrian meharra (jaiotza-tasa apalak eta haur gutxi); erdiko tartea meharra eta, goialdean, berriz, nabarmen zabaltzen da (heldu eta adinekoen ehunekoa handia da) eta, goi-goian, aldiz, gero eta meharra (bizi-itxaropen txikiagoa, adin tartetean goiti egin ahala). Piramideak adierazten du, batetik, jaiotza tasa jaitsi dela, eta bestetik, udalerriko biztanleria gero eta zaharra dela.

Piramidea 50etik 64 urterako bitarteko adin tartean zabaltzen da. Eta adin tarterik zabalena 55-59 urtekoa da, bai gizonetan, bai emakumeetan. Horrek adierazten du urte batzuen buruan biztanle kopuru nabarmena biztanleria erretiratua izanen dela.


Uztarrozeko adina, bana beste, 60,31 urte da (2021). Urte horretan, udalerrian 5 haur zeuden (0-15 urte).

2021ean, udalerrian erroldaturiko pertsonen % 52,6 Uztarrozen sortua zen; % 34,6, Nafarroako beste udalerri batzuetatik joan dira bizitzera, % 7,3


beste autonomia erkidego batzuetatik, eta % 5,3, berriz, beste herrialde batzuetatik.

Uztarrozeko biztanleriak aintzat hartzen du bizilagunen artean dagoen bizikidetzat eta harreman ona. Herrian komunitate sentimendua dago. Herri txikia da eta multzo batean dagoenez, badira harremanetarako gune anitx eta, ondorioz, bizilagunek elkar ezagutu eta harremanak dituzte.


Sentimendu handia dago identitate kolektiboari dagokionez eta Uztarrozekiko atxikimendu handia. Biztanleriak dio pozik dagoela herriko bizitzarekin eta herrian bertan bizi nahi duela.



BIZTANLE KOPURUAREN BILAKAERA




BIZTANLERIAREN JATORRIA



UZTARROZEREKIKO GOGOBETETASUN MAILA.

Iturria: Erin inkesta.



ERANTZUNA	ERANTZUNA	RATIOA
Gogobetea	52	%67,5
Gustiz gogobetea	11	%14,3
Neutrala	10	%13
Gogobete gabea	4	%5,2
Gustiz gogobete gabea	0	%0

(+)

INDARGUNEAK

1. Sustraitze sentimendu handia dago Uztarrozen, bai eta identitate kolektiboari dagokionez ere. Biztanleriak dio pozik dagoela herriko bizitzarekin eta herrian bertan bizi nahi duela.
2. Uztarrozeko biztanleriak aintzat hartzen du bizilagunen artean dagoen bizikidetzeta eta harreman ona. Herrian komunitate sentimendua dago. Herri txikia da eta multzo batean dagoenez, badira harremanetarako gune anitz eta, ondorioz, bizilagunek elkar eza-gutzen dute.
3. Biztanleria taldeak era anitzetakoak dira: pertsona batzuk urte osoan bizi dira, beste batzuk oporraldietan eta jaiegunetan, bertako biztanleria edo beste leku batzuetatik etorritako jendea.
4. On-ontzat jotzen da herrian gazteak eta haurrak izatea.
5. Badira herria hobetzeko gogoia duten bizilagunak. Auzolanetan jende anitzek parte hartzen du. Zenbait talde buru-belarri ari dira hainbat sektore eta ekitalditan: inautiak, herriko festak, gazte elkarteak, ehiztari taldea, etab.
6. Bizilagunen arteko elkarlan eta laguntza harremanak: laguntza erosketak egiteko, joan-etorrietarako, adinekoak artatzeko, etab.
7. Gogobetetasun handia dago herriarekin (% 81,1ek dio gogobetea edo guztiz gogobetea dagoela Uztarrozerekin).
8. Herriaren barne irudiari (bizilagunak) eta kanpo irudiari buruzko pertzepzioa ona da. Jende gehienaren iritziz, Uztarrozek inguruko beste udalerririk batzuen antzeko egoera dauka (% 36,4k soilik uste du inguruko beste udalerririk batzuk baino okerrago dagoela).


(-)

AHULEZIAK

1. Biztanleria dentsitate txikia. Udalerria etengabe ari da jendez husten. Biztanleria galtzen ari da eta biztanleriaren egitura zahartua dago, jaiotza-tasa apalak areagotua.
2. Biltzeko eta parte hartzeko gune gehiago behar dira, eztabaidatzeko eta herri gisa antolatzeko.
3. Bileretara gizon gutxi joaten dira.
4. Ez dago adinekoendako egoitzarik edo etxebizitza babesturik.

UZTARROZERI BURUZKO PERTZEPZIOA BESTE UDALERRI BATZUEN ALDEAN.


Iturria: Erin inkesta.



ERANTZUNA	ERANTZUNA	RATIOA
Gainerako udalerriak bezala	48	%62,3
Gainerako udalerriak baino baino txarrago	28	%36,4
Gainerako udalerriak baino hobeki	1	%1,3
Gainerako udalerriak baino askoz hobeki	0	%0
Gainerako udalerriak baino askoz txarrago	0	%0

UZTARROZEEKO BIZILAGUNEN PERTZEPZIOA


Iturria: Erin inkesta.



ERANTZUNA	ERANTZUNA	RATIOA
Gogobetea	47	%61
Guztiz gogobetea	15	%19,5
Neutrala	14	%18,2
Gogobete gabe	1	%1,3
Guztiz gogobete gabe	0	%0

UZTARROZERI BURUZKO KANPO PERTZEPZIOA.

Iturria: Erin inkesta.



ERANTZUNA	ERANTZUNA	RATIOA
Ona	46	%59,7
Hala-holakoa	17	%22,1
Oso ona	8	%10,4
Txarra	3	%3,9
Ez dute lbarra ezagutzen	3	%3,9
Oso txarra	0	%0





BIZITEGI ERABILERA USO RESIDENCIAL

E 1:4000

0 100 200 m

LEGENDA I LEYENDA

ERABILERA I USO

- Biztanledun etxebizitza
Vivienda habitada
- Etxebizitza hutsa
Vivienda deshabitada
- Beste erabilera duen etxebizitza eraikina
Edificio residencial con otro uso
- Beste eraikinak I Otras edificaciones

KONTSERBAZIO EGOERA ESTADO DE CONSERVACIÓN

- Ez da bizitzeko egokia I No habitable
- Aurri egoeran dauden eraikinak I Ruina



ETXEBIZITZA

(Eraikinak, salmenta eta alokairua, birgaitzea, berrikuntza)

Uztarrozeko etxebizitza gehienak egoera onean gaude. 129 eraikin dira habitagarri. Haietarik, 121 etxebizitzatzat jotzen ziren 2020an. Haietarik, 81 etxebizitza nagusiak ziren (% 66,9).

Udalerriko eraikin anitx hondaturik daude (13 eraikin) eta etxebizitza anitxetan ere esku hartu beharra dago gaizki kontserbaturik daudelako eta habitagarritasun arazoak daudelako (20 etxebizitza). Horien arteko 29 etxe inguru hutsik daude urte osoan eta 36 etxebizitza beste gauza batzuetarako erabiltzen dira.

Herriko etxebizitza anitxek irisgarritasun arazoak dituzte, etxeak hainbat solairutan banaturik ohi daudelako. Eta etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa apala da.

Oso zailtasun handiak daude etxebizitzak birgaitzeko eta egokitzeko.

Gabezia handia dago etxebizitza-eskaintzan hala alokatzeko nola saltzeko. Prezioak altuak dira. Etxebizitzaren tamainak eta birgaitu beharrak prezioak garestitzen dituzte (hainbat logelatako etxe handiak dira, patioa eta/edo baratzea, etab.).

Uztarrozek 5 etxebizitza publiko ditu alokairu erregimenean, udal jabetzakoak, eta Nasuvinsak kudeatuak (Nafarroako Gobernua), baina aspaldi-aspalditik bizi da jendea eta ez da txandaketarik.

(+)

INDARGUNEAK

1. Etxebizitza gehienak egoera onean daude (121 etxebizitza habitagarri).
2. Eraikinen ehuneko handi bat tokiko materialekin eginak dira.
3. 5 etxebizitza publiko daude alokairu erregimenean, udal jabetzakoak, eta Nasuvinsak kudeatuak.
4. Herrian badira eskuragarri etxe hondatuak eta etxebizitza hutsak.
5. Udalak apartamentu bat egokitu du alokatzeko.

AHULEZIAK

1. Udalerriko eraikin anitx hondaturik daude (13) eta etxebizitza anitxetan ere esku hartu beharra dago gaizki kontserbaturik daudelako eta habitagarritasun arazoak daudelako (20 etxebizitza).
2. Gabezia handia dago etxebizitza-eskaintzan hala alokatzeko nola saltzeko. Prezioak altuak dira eta eraikinek birgaitze behar handiak dituzte.
3. 29 etxe inguru hutsik daude urte osoan eta 36 etxebizitza beste gauza batzuetarako erabiltzen dira.
4. Uztarrozek Babes Ofizialeko Etxebizitzak ditu alokairu erregimenean, baina aspaldi-aspalditik jendea bizi da eta ez dago txandaketarik.
5. Herriko etxebizitza anitxek irisgarritasun arazoak dituzte, etxeak hainbat solairutan banaturik ohi daudelako.
6. Etxebizitzak birgaitzeko eta egokitzeko zailtasunak daude.
7. Egungo etxebizitza parkearen eraginkortasun energetiko apala.
8. Burokrazia eta arazoak etxebizitzetan berrikuntzak egiteko, etxeen eskritura-egoera dela eta (oso antzinakoak) edota katastroarekin arazoak daudelako.

(-)



ERAKUNDEAK, EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK.

(Erakundeak, baliabideak, ekipamenduak, zerbitzuak, jarduerak)

Udalerriak ia ez du erakunde zerbitzurik. Zerbitzu horiek Erronkaribarren daude, edo Irunberrin, Zangozan edo Iruñerrian zentralizaturik.

Honatx Uztarrozeko ekipamendu nagusiak: hilerria, Patroziñoko Amaren Baseliza, Santa Engrazia eliza, kontsultategi medikoa, alokairuko apartamentu publikoak, coworking gunea, Udala, pilotaleku estalia, haur parkea eta bainu-eremua. Horiei ekipamendu pribatu bat erantsi beharko litzaieke: Gaztaren eta Transhumantziaren Museoa.

Udalerriak udalez gaindiko erakundeak ditu, eta erakunde horiek eskumenak eta baliabideak dituzte eremuaren toki garapena sustatzeko: Erronkaribarko Batzordea, Cederna Garalur, Mankomunitateak, Pirinioetako Mahaia, etab.

Udala hautagaitza independente batek gobernatzen du, bizilagunek sortua udal politika kudeatzeko. Udalbatza alkateak eta lau zinegotzik osatzen dute. Udalbatza hautatzeko sistema herritarrek proposaturik egiten da.

Udalak langile kontratatutak ditu udalerriko politika publikoak garatzeko. 2022an, hiru lanpostu garatu dira: Udaleko idazkaritza, administraria eta zerbitzu anitzak (albientea).

Udalaren aurrekontuak 245.282,73 €-ko diru-sarrerak izan zituen 2021ean eta 197.953,24 €-ko gastuak guztira. Udal aurrekontua azken 5 urte honetan bilakatu da, diru-sarrerak eta gastuak handitu baitira.


Udalak udal baliabide eta diru-sarrera gutxi ditu. Horrenbestez, handia da udalez gaindiko mendekotasuna zerbitzuetan eta dirulaguntzetan.

Kirol, kultur eta aisia jarduera gutxi daude udalerrian.

Uztarrozeko bizilagunek badute parte hartzeko interesa, gogoia, auzolan deialdietan, bizilagunen batzarretan, parte-hartze prozesuetan eta herriko festen antolaketan ikusten den bezala.


UZTARROZEKO BIZILAGUNEK ZERBITZUEKIKO DUTEN GOGOBETETASUNA

Iturria: Erin inkesta.




UZTARROZEKO UDALAREN INFORMAZIOAREN BALORAZIOA

Iturria: Erin inkesta.


**INFORMAZIOA HOBETZEKO PROPOSAMENAK**

Iturria: Erin inkesta.

■ Oso ez ados
 ■ Ez ados
 ■ Neutroa
 ■ Ados
 ■ Oso ados

**PARTE-HARTZEA HOBETZEKO PROPOSAMENAK**

Iturria: Erin inkesta.

**INDARGUNEAK**

1. Uztarrozek udalez gaindiko erakundeak ditu, eta erakunde horiek eskumenak eta baliabideak dituzte toki garapena sustatzeko eta beste batzuen aitzinean solaskide gisa aritzeko: Erronkaribarko Batzordea, Cederna Garalur, Mankomunitateak, Pirinioko Mahaia, etab.
2. Ekipamenduak: kontsultategi medikoa, Udala, zernahitarako gela, Udaletxe azpian, alokairuko apartamentu publikoak, coworking gunea, pilotaleku estalia, haur parkea eta bainu-eremua.
3. Zerbitzu anitzeko enplegatu bat (albientea), administrari bat eta idazkaria denbora partzialean kontratatu izana.
4. Hautagaitza independentea, bizilagunen elkarte gisa sortua udal politika kudeatzeko. Udalbatza hautatzeko sistema, herritarrek proposatua.
5. Uztarrozen bada go parte hartzeko gogoia, gauzak egin nahia: auzolan deialdiak, bizilagunen batzarreak, parte-hartze prozesuak, herriko jaiak.
6. Gogoeta estrategikoa egiteko prozesua udalerrira biziberritzeko, herritarrekin batera. Udal Plan Estrategikoa.
7. Foru, estatu eta Europa mailako baliabideak iristeko aukera. Inguru hau eskualde behartsu gisa dago sartua despopulazioari dagokionez, eta landa garatzeko diru eta ekimen instituzionaletara dauka sarbidea.

AHULEZIAK

1. Ez dago zerbitzurik udalerrian. Irunberrin, Zangozan eta Iruñerrian zentralizaturik daude.
2. Udal baliabide gutxi eta diru-sarrera urriak. Udalez gaindiko mendekotasuna zerbitzu eta dirulaguntzetan.
3. Kirol, kultur eta aisia jarduera gutxi udalerrian.
4. Herriak mantentze handiagoa behar du albienteak egin dezakeena baino.
5. Gero eta behar handiagoak daude Uztarrozeko adinekoei arreta eta laguntza emateko.

(+)

(-)



EKONOMIA ETA KONTSUMOA.

(Jarduera ekonomikoa, enplegua, kontsumoa)

Uztarrozeko ekonomia tradizionala gainbehera heldu da (nekazaritza eta abeltzaintza) edo ez dago behar bezainbeste aprobetxatua (oihan baliabideen kudeaketa), eta hirugarren sektoreak (merkataritza eta turismoa) edo beste sektore batzuek ez dute huraxe berdindu.

Jende gehienak udalerritik kanpo lan egiten du eta, gaur egun, langabezia tasa zero da (2022).

Lehen sektorea nabarmen ari da atzerantz. Nekazaritza jarduera urri-urria da, hau da, hiriguneko eta inguruetako baratze lana baizik ez. Belardiak eta bazkalekuak alorren kaltetan zabaldu dira. Uztarrozeko azken 20 urteko azia-errolan jaitziera nabarmena ageri da hala abeltzaintzaren nola behi eta ardi buruetan; zaldi-azia pixka bat handitu da. Oihan aprobetxamenduak txikiak dira, oihan azalera kontuan hartuta.

Udalerrian industria-eremu txiki bat dago, egungo gaztandegia baizik ez.

2021ean, udalerrian 5 enpresa zeuden, sektore honetakoak: 2, industriakoak; 2, eraikuntzakoak; 0, merkataritzakoak, eta 1 gainerako zerbitzuetakoak.

Halaber, 9 abeltzaintza-baliabide zeuden eta, haietarik, 4 ardi-aziendari zegozkion; 3, behi-aziendari; 1, txerri-aziendari, eta 1, zaldi-aziendari.


Zerbitzuen sektorean, Uztarrozen landetxe bat dago, 3 turismo apartamentu eta taberna bat. 2022ko urtariletik abuztura bitarte, 6.082 turistak bisitatu dute herria, hau da, 2021eko denboraldi berean baino % 53 gehiago izan dira. Haietarik, 1.044 jatorriz nazioartekoak eta 5.038, berriz, estatukoak. Uztarrozek pixkanaka galdu zituen eguneroko

erosketari zerbitzua ematen zioten dendak; horren ondorioz, herritarrek inguruko herrietan eta Iruñerrian egiten dituzte erosketak eta mandatuak. Uztarrozen okindegi zerbitzua bakarrik dago (egunerokoa); bestalde, arrain salmenta ibiltaria (astean behin); beraz, produktuen kontsumoa herritik kanpo egiten da.

Elikagaiak, garbigarriak, etxeko gauzak, higie eta perfumeriakoak, (eta banku nahiz finantza kontuak) gehienbat Erronkaribarren erosten dira (% 65) eta, gainerakoa, berriz, Iruñerrian (% 39). Kontsumoaren gainerakoa batez ere Iruñerrian egiten da (% 75).

Pertsona bakoitzeko errenta garbia 2020an (bi sexuak) 15.797,2 €-koa izan zen Uztarrozen; Nafarroako batez bestekoaren gainetik (13.449,1 €). Urte berean, etxeko errenta, bana beste, 30.793,6 €-koa izan zen, hau da, Nafarroako batez bestekoaren azpitik (35.430,3 €). Eta udalerriko soldata gordina, bana beste (bi sexuak) 28.955,8 €-koa izan zen 2020an, Nafarroako batez bestekoaren gainetik (27.992,4 €). Udalerriko pobrezia arriskuaren tasa 2020an (bi sexuak) 18,4%-koa izan zen, hots, Nafarroako batez bestekoaren azpitik (21,3%).

BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONAKO, ETXEKO ETA POBREZIA ARRISKUAREN TASAREN ARABERA.



UZTARROZEKO AZIENDAREN KOKAPENA
Iturria: Nafarroako Gobernuako azien da errolda (20-21)

- Zaldi-azien da
- Txerri-azien da
- Behi-azien da
- Ardi-azien da




ENPRESAK UZTARROZEN



AZIENDA KUDEAKETA UZTARROZEN



ZURE IRITZIZ, ZER SEKTORE EKONOMIKO INDARTU BEHAR DIRA GEHIEN UZTARROZEN?



(+)

INDARGUNEAK


1. Okidengi bat dago, egunero ematen du zerbitzua eta topagunea da.
2. Astean behin, arraina saltzeko zerbitzu ibiltari bat iristen da.
3. Bizilagunen artean, herrian tokiko kontsumoa egiteko kontzientzia dago. Uztarrozeko eta inguruko zerbitzuak eta negozioak bultzatzen dituzte.
4. Plazan taberna bat dago.
5. Erronkaribarrek gero eta interes handiagoa du, naturari, kulturari eta gastronomiari begira dituen balioengatik.
6. Nork bere elikagaiak baratze txikietan ekoizteko portzentaje handia dago.
7. Udalak coworking gune bat dauka.

(-)

AHULEZIAK

1. Ez dago laguntzarik eta txandaketarik lehen sektorean.
2. Ez dago industria txikirik edo ertainik, hainbat zailtasun direla eta: ez dago lurzoru industrialik, Iruñerria urrun dago, errepideen trazatu zaila, etab.
3. Giza baliabideetan defizita dago, biztanleria aktiboaren zahartze etengabea.
4. Ez dago txandaketarik lehen sektorean. Hirugarren sektorean ez dago kalitatezko eskaintza zabalik.
5. Ez dago oinarrizko erosketa egiteko dendarik. Ez dago behar adina biztanlerik denda bati eustea ahalbidetuko lukeen produktu eskari bat ziurtatzeko.
6. Ohikoa da inguruko beste herri batzuetara edo Iruñerrira joatea erosketak egiteko. Kontsumoaren zati handi bat Pirinioetako eskualdetik kanpo egiten da, Iruñerrian, hain zuzen.
7. Tokiko proiektu ekonomikoak garatzeko zailtasunak daude.
8. Lan merkatuari begira, gazteek eta emakumeek desabantaila dute.

KONTSUMO OHITURAK



Erronkak ardatzez ardatz

Ingurumena, paisaia eta ondarea



1. Ingurumen aberastasuna **babestea** eta natur baliabideak jasangarritasunez kudeatzea
2. Ondare eta gizarte memoria **berreskuratzea** eta hedatzea
3. Klima-aldaketaren aurkako toki estrategia bat **garatzea**

Lurraldea eta mugikortasuna



1. Herrian sartzeko **errepideak eta bideak hobetzea**
2. Udalerriko oinezkoendako eta txirrindulariendako bide sarea **egokitu eta lehengoratztea**
3. **Garraio publikoa hobetzea**
4. **Mugikortasun jasangarria sustatzea**, ibilgailuen erabilera partekatua erraztuko duten zerbitzuetatik abiatuta

Hirigintza eta azpiegiturak



1. **Uraren kudeaketari** loturiko azpiegitura hobetzea
2. Energia berriztagarrien autoekoizpena, autokontsumo partekatua eta energia-aurrezpena **handitzea**
3. Udalerriko **topaguneak** eta aisia lekuak hobetzea
4. **Aparkalekuak arautu eta handitzea**

Biztanleria eta gizarte egituraketa



1. Biztanleria **mantentzea** eta gaztetzea
2. Herritarren identitate kolektiboa, topaketa eta kohesioa indartuko dituzten **jarduketak bultzatzea**
3. Bizilagunen eta aldi baterako egoiliarren **inplikazioa** eta parte-hartzea **handitzea**
4. **Gizarte-sarea**, ekintza komunitarioa eta auzolana **bultzatzea**
5. **Euskara sustatzea**

Etxebizitza



1. Etxebizitza erraza eskuratzeko **estrategia bultzatzea**
2. Alokairuko etxebizitza publikoa **sustatzea**
3. Etxebizitza zaharrak birgaitzen, berritzen eta egokitzen **laguntzea**

Erakundeak, ekipamenduak eta zerbitzuak



1. Osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuetako oinarriko zerbitzuetarako sarbidea **hobetzea**
2. Kirol, kultur eta aisia arloko jarduera **gehiago egitea**; bereziki, haur, gazte eta adinekoei zuzendutakoak
3. Herria **hobeki** mantendu eta egokitzea
4. **Estrategia komunitario bat garatzea** adinekoak zaintzeko eta laguntzeko

Ekonomia eta kontsumoa



1. Ekintzailtza proiektuak hirugarren sektorean eta lehen sektorean **bultzatzea**
2. Udalerria aisia-eremu gisa **sustatzea**, betiere naturari, kirolari eta kulturari loturik
3. Ekintzailtza proiektuak landa eremuan **garatzea**
4. Tokiko ekoizpena, merkataritza eta kontsumoa **sustatzea**
5. Talde ekimenak eta lankidetzak publiko-sozialeko ekimenak **esperimentatzea** udalerriaren beharrei erantzuteko



4.

Planaren formulazioa

4.1. Plan Estrategikoa formulatzeko metodologia.

Proiektu honen bigarren etapak gogoeta eta eztabaida izan zituen ardatz Uztarrozeko elementu estrategikoen inguruan, analisi estrategikoaren emaitzetatik abiaturik. Tailer irekien bidez gauzatu zen; hau da, Uztarrozeko eragileei, erakundeei eta biztanleei dei egin zitzaien Udal Plan Estrategiko bat datozen 5 urteotarako formulatu, eztabaidatu eta onesteko.



4.2. Parte-hartze prozesuaren jarduketak.

1. Bizilagunek parte hartzeko tailerrak.

5 tailer egin ziren, guztiak ere irekiak, eta funtsezko eduki hauek landu ziren:

1. saioa- Diagnostikoa itzuli eta erkatzea
2. saioa- Etorkizun kontakizunak (mugarriak, balioak, galgak eta bultzagarriak)
3. saioa- Arlo, ildo eta ekintza estrategikoetarako proposamenak
4. saioa Ikuspegia, eginkizuna eta balioak proposatzea, eta proposamen gehiago Planerako biltzea
5. saioa- Planaren erkaketa, adierazleen berrikuspena eta lehen urterako lehentasunak ezartzea.

2. Sistematizazio lana.

Aldi berean, azaleratzen ziren proposamenen bilketa eta sistematizazioa egin zen; proposamen bakoitza bere irismenaren arabera antolatu zen, planaren parte gisa, eta biztanleei itzuli zitzaizkien berrikus zitzaten eta, egokia bazen, alda zitzaten.

3. Koordinazio eta jarraipen ekintzak.

Bigarren etapan zehar, Udalarekin alderdi logistikoak koordinatu dira eta informazioa biltzen jarraitu da plana hobetzeko.

4. Prozesua hedatu eta iragartzeko jarduketak

Berriz ere, zabalkundeko ekintzak egin ziren parte-hartze saioetara eta azken jardunaldira gonbidatzeko.

5. Aurkezpen jardunaldia

Emaitzak herritarrei itzultze aldera eta prozesuaren bukaera ospatzeko, bilera bat egin zen prozesuaren urratsak gogora ekartzeko, parte-hartzeari buruzko datuak emateko eta ondoriozko Plana laburbiltzeko.

4.3. Plana formulatzeko ardatzak.

Planaren formulazioa egiteko, diagnostikoaren etapan azterturiko analisi ardatzak hartu ziren abiaburutzat:



Analisien emaitzetatik abiatutik, eta bereziki, eratorritako ondorioak abiaburu harturik, Plan Estrategikoa eraikitzeko oinarri izaniko proposamenak sortu ziren.

4.4. Parte-hartzearen lagina Planaren Formulazioan

82
ALDIZ


BANAKETA SEXU/GENEROAREN ARABERA:



JARDUKETAK:



BANAKETA ADINAREN ARABERA:



4.5. Komunikazio plana.

Parte-hartze prozesuari prozesu osoan garatu den komunikazio planaren bidez eman zaio segida, hau da, prozesua hedatu eta iragartzeko ekintza horien bidez, Plana formulatzeari begira:

- Prozesuari buruzko kartelak herriko toki adierazgarrietan (bigarren etaparen hasierako 20 kartel).
- Udal banda.
- Mezularitza mugikorrera egokitu da: whatsapp eta telegram.
- Hedabideendako prentsa-oharra
- Astero mezua igorri dira mezularitza mugikorraren bidez parte-hartze saioen eguna eta ordua oroitarazteko.

Proceso participativo para un Plan Estratégico Municipal
Udal Plan Estrategiko baterako parte-hartze prozesua (2023-2028)

erín
Elkarrekin erein
Sembrando juntas y juntos

TALLERES PARTICIPATIVOS DE PLANIFICACIÓN ESTRATÉGICA

TALLERES PARTICIPATIVOS
3, 10 y 24 de septiembre
8 y 15 de octubre
Ayuntamiento: 18.00 h.

JORNADAS DE PRESENTACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO
29 de octubre.
Ayuntamiento: 18.00 h.

PLANGINTZA ESTRATEGIKOKO TAILER PARTE-HARTZAILEAK

TAILER PARTE-HARTZAILEAK
Irailaren 3a., 10a. eta 24a.
Urriaren 8a. eta 15a.
Udaletxea: 18.00 h

PLAN ESTRATEGIKOKO AURKETZEKO JARDUNALDIAK
Urriaren 29a.
Udaletxea: 18.00 h

ORGANIZA / AN TOLATZEN DU: UZTARROZEKO AZA BILGUA AYUNTAMIENTO DE UZTARROZ

SUBVENCIONA / DIRUZ LAGUNTZA: Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

COLABORAN / KOLABORATZAILEAK: Junta General del Valle de Navarra Gu PIRINIOA SOMOS PIRINEO cederna garaluz

MÁS INFORMACIÓN/ INFORMAZIO GEHIAGO
Ayuntamiento de Uztároz / Uztarroze / Uztarrozeko Udala • Barrio Zabalea, 8, 31418 Uztároz/ Uztarroze • 948 89 30 15

5.

Uztarroze 2023-2027

5.1. Plan estrategikoaren egitura.

Plana 3 arlo ardatz harturik dago antolatua. Arloetatik 6 ildo estrategiko abiatu dira, 26 ekintza estrategikorekin eta ekintza operatiboetarako 64 proposamenekin. Horri guztiorri ekintza estrategikoetarako adierazleak gehitu dira eta, era berean, plana abian jartzen den lehen urterako ekintzak.



5.2. Eginkizuna eta ikuspegia.

IKUSPEGIA

Biztanle finko gehiago dituen herria, haur gehiagorekin, jarduerarekin eta zerbitzu gehiagorekin, eguneroko bizitza erraza duena, lurraldea eta bertako baliabideak jasangarritasunez erabiltzen dituen.

EGINKIZUNA

Herri bizia izatea, nortasun handikoa, komunitate sentimendua duena eta lurraldeari lotua.



5.3. Balioak.

BALIOAK



Elkarlana eta Elkarrekiko Laguntza:

Uztarrozeko bizilagunek egunerokoan laguntzen diogu elkarri.



Harrera:

Pertsona berrien etorrera pozez hartzen dugu, hala bisitariak nola bizilagun berriak.



Parte-hartzea:

Guztion onerako bizilagun gisa dagozkigun gauzetan parte hartzen dugu.



Aniztasuna:

Bereziki belaunaldiartekotasuna maite dugu eta, gure aniztasunaren barnean, enpatia eta errespetua agertzen ditugu.



Aldaketarako jarrera irekia:

Jarrera irekia dugu egiteko modu berrietarako.



Sustraitzea:

Harro gaude gure sustraieiz, bai eta herrigintza egiteko dugun moduaz ere.



Poza:

Umorea, ospakizunak egitea eta gauzak egiteko gogoa ditugu bereizgarri.



Lurraldearen jasangarritasuna eta zaintza:

Bizi garen lurraldea hartzen dugu aintzat eta huraxe etorkizuneko belaunaldietarako mantentzen lagundu nahi dugu.

5.4. Helburuak, arlo eta ildo estrategikoak.

1

HELBURU NAGUSIA

1HN- Uztarrozeko ingurumen aberastasuna eta kultur ondarea babestu, lehengoratu eta hedatzea

1. ARLO ESTRATEGIKOA. Ingurumen aberastasuna eta ondarea.



1 IE:
Uztarrozeko ingurumen aberastasuna eta baliabideak



2 IE:
Kultur ondarea

2

HELBURU NAGUSIA

2HN- Uztarrozeko biztanleria egonkorra handitzea adin tarte gazteenetan, eta adinekoek udalerrian jarraitu dezatela indartzea.

2. ARLO ESTRATEGIKOA. Biztanleria



1 IE:
Etxebizitza



2 IE:
Enplegua

3

HELBURU NAGUSIA

3HN- Uztarrozeko biztanleen eguneroko bizitza erraztu eta aberastea.

3. ARLO ESTRATEGIKOA Eguneroko bizitza



1 IE:
Mugikortasuna



3 IE:
Aisia, kultura eta parte-hartzea



3 IE:
Topaguneak eta azpiegitura guneak

5.5. Arlo, ildo eta ekintza estrategikoak.



1. INGURUMEN ABERASTASUNA ETA ONDAREA



1. ILDO ESTRATEGIKOA: Ingurumen aberastasuna eta baliabideak

Helburua:

Uztarrozeko ingurumen
aberastasuna eta baliabideak
babestu eta zaintzea.

- 1. EE.** Mendia eta ibaiak aldizka garbitzea.
- 2. EE.** Suteei aurrea hartzea.
- 3. EE.** Finka pribatuen kudeaketa
jasangarriaren ezagutza sustatzea.
- 4. EE.** Mendiaren erabilera arautzea:
larreak eta ehiza.
- 5. EE.** Ur hornikuntzarako azpiegitura
optimizatzea.
- 6. EE.** Energia berriztagarrien
autoekoizpena, auto-kontsumo partekatua
eta energia-aurrezpena handitzea.



2. ILDO ESTRATEGIKOA Kultur ondarea

Helburua:

Kultur ondarea berreskuratu eta
hedatzea, eta euskararen presentzia
areagotzea.

- 1. EE.** Uztarrozeko ondare-memoria
berreskuratu eta hedatzea.
- 2. EE.** Euskararen presentzia areagotzea eta,
ahal den heinean, erronkarierazko hitzak
erabiltzea.





2. BIZTANLERIA



1. ILDO ESTRATEGIKOA: Etxebizitza

Helburua:

Uztarrozen eskura dagoen etxebizitza kopurua handitzea jende berria kokatzeko.

- 1.E.E.** Etxebizitzak berritzeko izapideak erraztea eta hondaturik dauden etxeen birgaitzea bultzatzea.
- 2. E.E.** Etxebizitza pribatuaren alokairua sustatzea.
- 3. E.E.** Etxebizitza publikoa alokairu erregimenean sustatzea txandaketarekin.



2. ILDO ESTRATEGIKOA: Enplegua

Helburua:

Enplegua edo autoenplegua Uztarrozen sor dadila sustatu eta bultzatzea.

- 1. E.E.** Lehen sektorea sustatzea.
- 2. E.E.** Talde ekimenak eta lankidetza publiko-sozialekoak esperimentatzea.
- 3. E.E.** Uztarrozeko zerbitzuak sustatzea.
- 4.E.E.** Turismo jasangarria sustatzea.





3A. EGUNEROKO BIZITZA



1. ILDO ESTRATEGIKOA: Mugikortasuna

Helburua:

Oinezkoen mugikortasuna hobetzea herri barnean eta zerbitzuetarako sarbidea Uztarrozetik at.

- 1. E.E.** Udalerrirako errepide bidezko sarbidea eta segurtasuna hobetzea.
- 2. E.E.** Hiriguneko aparkalekuak arautzea eta hirigunetik kanpo diren aparkalekuak ugaritzea.
- 3. E.E.** Mugikortasun publikoa edo partekatua sustatzea.
- 4. E.E.** Oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea hobetzea.



2. ILDO ESTRATEGIKOA: Aisia, kultura eta parte-hartzea

Helburua:

Udalerrian kultur jarduera handiagoa sustatzea, bisitarien etorrera bultzatzea eta bizilagunen parte-hartzea eta gobernantza indartzea.

- 1. E.E.** Udalerria aisia eremu gisa sustatzea, naturari, kirolari eta kulturari loturiko jardueren bidez.
- A.E. 2.** Aisia eta kultura arloko jardueren dinamizazioa eta ekintza komunitarioa sustatzea udalerrian.
- A.E. 3.** Aurrez aurreko parte-hartze guneak sustatu eta garatzea herritarrendako, informazio eta parte-hartze bide erdi presentzialak barne.
- A.E. 4.** Estrategia komunitario bat garatzea Uztarrozeko adinekoak zaintzeko eta laguntzeko.



3. ILDO ESTRATEGIKOA: Topaguneak eta azpiegiturak

Helburua:

Biltokiak ugaritzea Uztarrozen, espazio publikoen gaineko pertzepzioa hobetzea eta herritarrek telefonia eta internet sarbide hobearen izan dezatela sustatzea.

- 1. E.E.** Egungo topaguneak hobetu eta handitzea
- 2. E.E.** Hiri paisaia eragina duten elementuen kokapena edo diseinua egokitzea/birpentsatzea

5.6. Ekintza operatiboak.

1. ARLO ESTRATEGIKOA: INGURUMEN ABERASTASUNA ETA ONDAREA

1. I.E. INGURUMEN ABERASTASUNA ETA BALIABIDEAK

1. E.E. Mendia eta ibaiak aldizka garbitzea

- **Adierazlea:** Urtean behin garbiketa bat egin da ibaian eta beste bat mendian
- **Ekintza operatiboak:**
 - 1.1.1. Udalak urtero auzolanetarako deia egitea ibilgua garbitzeko (herriko tartean) eta mendia garbitzeko.

2. E.E. Suteei aurrea hartzea.

- **Adierazlea:** Badago suteei aurrea hartzeko plan bat eta oihan lanei buruzko araudi bat.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 1.2.1. Suebaki bat herriaren inguruan egitea baloratzea.
 - 1.2.2. Oihan lanen ondotik, mendia legez garbitu behar izatea.
 - 1.2.3. Suteei aurrea hartzeko plan bat egitea.

3. E.E. Finka pribatuen kudeaketa jasangarriaren ezagutza sustatzea.

- **Adierazlea:** Oihan elkartearekin koordinaturiko prestakuntza ekintza bat egin da finka pribatuen kudeaketa jasangarriaz.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 1.3.1. Prestakuntza bat edo batzuk abian jartzea koordinatzea Uztarrozeko Oihan Elkartearekin finka-jabeentzat finken oihan kudeaketaz eta jabetzen zedarripenaz.

4. E.E. Mendiaren erabilera arautzea: larreak eta ehiza.

- **Adierazlea:** Ehiza barrutiari buruzko akordio indarduna berrikusi eta, hala bada, eguneratu da. Batzordeak sustaturiko parte-hartze prozesutik eratorritako larre akordioak gauzatu dira.

▪ Ekintza operatiboak:

- 1.4.1. Ehiza barrutia kudeatzeko indarrean den akordioa berrikustea (zikloaren bukaeran).
- 1.4.2. Planifikatuen gaineko larre ordenantza beharra aztertzea, Ibarreko Batzordeak sustaturiko arautze prozesuaren ondotik.
- 1.4.3. Ziza eta onddoren barrutiaren erabilera arautzea.

5. E.E. Ur hornikuntzarako azpiegitura optimizatzea

- **Adierazlea:** Bi ur biltegiak ongi funtzionatzen dute.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 1.5.1. Euri-uren sarean dauden ihesak atzematea eta konpontzea.
 - 1.5.2. Bi ur biltegiak herriaren beharretarako eskura egon daitezela ziurtatzea (giza hornidura, baratzeak ureztatzea, suteei aurrea hartzea, etab.).

6. E.E. Energia berriztagarrien autoekoizpena, auto-kontsumo partekatua eta energia-aurrezpena handitzea.

- **Adierazlea:** Herrian energia berriztagarriaren autoekoizpena handitu da.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 1.6.1. Eraikin publikoetako teilatuen erabilera baloratzea (pilotalekua, adibidez), haietan plaka fotovoltaikoak paratzeko eta haien bidez eraikin horien beharrak asetzeko.
 - 1.6.2. Plata fotovoltaikoak elkarrekin erosteko eta jartzeko aukera aztertzea, autokontsumo partekatua egiteko aukerarekin.
 - 1.6.3. Isolamendu termikoetarako sistemen balorazioak eta erosketa kolektiboa egiteko aukera aztertzea eraikinen eraginkortasuna hobetze aldera.
 - 1.6.4. Herrilurretako egurra biltzeko zerbitzu bat ezartzeko aukera baloratzea etxez etxe banatzeko.

2. I.E. KULTUR ONDAREA

1. E.E. Uztarrozeko ondare-memoria berreskuratu eta hedatzea.

- **Adierazlea:** Badago Uztarrozeko ondare-memoriari buruzko dokumentazio gehiago eskuragarri eta irisgarri bizilagunendako.

▪ **Ekintza operatiboak:**

- 2.1.1. Zubi erromanikoak birgaitzea
- 2.1.2. Kartelak eta informazioa interpretaziozko ibilbideetan mendiko faunaz, landarediaz, topografiaraz, kulturaz.
- 2.1.3. Erasmus unibertsitario bat bilatzea udal artxiboa antolatzeke, eta elizan dagoen herriaren ondarea eta dokumentazioa berreskuratzeke. Gune fisiko bat moldatzea informazio eta dokumentazio garrantzitsu guztia zaintzeke eta jendeak eskuratzeke.

2. E.E. Euskararen presentzia areagotzea eta, ahal den heinean, erronkarierazko hitzak erabiltzea.

▪ **Adierazlea:** Euskara etengabe ageri da Udalaren jakinarazpenetan, bai eta Uztarroze inguruko lekuen seinaleetan ere.

▪ **Ekintza operatiboak:**

- 2.2.1. Euskararen erabilera Udalean arautzeke ordenantza bat izatea (langileak eta jakinarazpenak)
- 2.2.2. Seinaleztapena ele bitan egitea Uztarrozeke leku interesgarrietan, bideetan...

LEHENTASUNEZKO EKINTZA OPERATIBOAK

1I: Ingurumen aberastasuna

- 1.1.1. Udalak urtero auzolanetarako deia egitea ibilgua garbitzeke (herriko tartean) eta mendia garbitzeke
- 1.2.2. Oihan lanen ondotik, mendia legez garbitu behar izatea.
- 1.6.1. Eraikin publikoetako teilatuen erabilera baloratzea (pilotalekua, adibidez), haietan plaka fotovoltaiakoak paratzeke eta haien bidez eraikin horien beharrak asetzeke.

2I: Ondarea

- 2.1.2. Kartelak eta informazioa interpretaziozko ibilbideetan mendiko faunaz, landarediaz, topografiaraz, kulturaz.

2. ARLO ESTRATEGIKOA: BIZTANLERIA

1. I.E. ETXEBIZITZA

1. E.E. Etxebizitzak berritzeko izapideak erraztea eta hondaturik dauden etxeen birgaitzea bultzatzea.

- **Adierazlea:** Udalak informazio irisgarria, aholkularitza eta laguntza ematen du etxebizitzaren berrikuntza izapidetzeko.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 3.1.1. Herri guztiko katastroa eguneratzea.
 - 3.1.2. Etxebizitzaren inguruko aholkularitza zerbitzu bat izatea eskura, jendea programa orokorretan eta etxebizitza zaharrak birgaitzeko, berritzeko eta egokitzeko laguntzetan sartzen laguntze aldera.
 - 3.1.3. Berrikuntza egiteko eman behar diren urratsei buruzko informazioa izatea, pauso zehatzak eta guzti.

2. E.E. Etxebizitza pribatuaren alokairua sustatzea.

- **Adierazlea:** Badira eskura Uztarrozen alokairuan dauden etxeak prezio eskuragarrietan.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 3.2.1. Lege-esparruak aztertzea, Udalak eraikin hondatuak edo lursailak desjabetu ditzan, edota etxebizitzak tasen bidez zergapetu ditzan, ez badira erabiltzen edo ez badaude salgai edo alokagai.
 - 3.2.2. Jabeen eta maizter posibleen arteko harremana erraztea, alokairu erregimenari dagokionez. Jabeek eta maizterrek 10 edo 11 hilabeteko alokairuetan eta gisako formatuetan izan dezaketen interesa ikustea.
 - 3.2.3. Beste etxebizitza formatu batzuei buruzko jardunaldiak egitea: etxebizitza partekatua, erabilera lagatzea, eraikuntza pribatua laga den lursail publikoaren gainean.
 - 3.2.4. Udalak bitartekaritza lana egitea etxaldeak edo bordak uzteko.

3. E.E. Etxebizitza publikoa alokairu erregimenean sustatzea txandaketarekin.

- **Adierazlea:** Etxebizitza publikoa alokatzeko leku guztiak erabiliak daude eta txandaketa nahiz berrikuspen irizpideekin bat.

▪ Ekintza operatiboak:

- 3.3.1. Uztarrozen alokatzeko edo saltzeko interesa duten pertsonen poltsa bat egitea izan daitekeen eskariaren neurria izateko.
- 3.3.2. Uztarrozeko etxebizitza publikoaren alokairua arautzea, txandaketa erabilera jarraitua izateko.
- 3.3.3 Behar berrietara egokitutako etxebizitza tipologiak sortzea (familia anitzeko etxebizitzak, energia kontsumo apalagokoak berokuntza-sistema hobetuz, Uztarrozeko klima-baldintzetara egokituta)

L.E.1 ENPLEGUA

1. E.E. Lehen sektorea sustatzea.

- **Adierazlea:** Lehen sektorean lanpostu berriak sortu dira.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 4.1.1. Mendian pistak, idoiak eta bordak egitea, abeltzain gazteak koka daitezen.
 - 4.1.2. Artzain edo abeltzain gazteek etxebizitza eskura dezatela erraztea
 - 4.1.3. Bortuak bazkalekutako egokitzea (NGren mendean)
 - 4.1.4. Gure bazterretan landu daitezkeen, "etorkizuneko laboreei" buruzko azterlan bat egitea, klima-aldaletara egokituak, betiere.

2. E.E. Talde ekimenak eta lankidetzak publiko-sozialekoak esperimentatzea.

- **Adierazlea:** Lankidetzak publiko-sozialeko bi ekimen abiarazi dira.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 4.2.1. Zerbitzu anitzeko kontsumitzaile talde edo kooperatiba bat garatzeko aukera aztertzea (iturgintza, igeltserotza, pintura, etab.).
 - 4.2.2. Diagnosian atzemandako beharrei erantzuteko moduko beste ekimen batzuk aztertzea: garraioa, etxebizitza, energia, behar-beharrezko produktuen kontsumoa, etab.
 - 4.2.3. Ibarreko gizarte zerbitzuekin batera baloratzea adinekoen zer behar ez dauden aseak, zer beste ekimen beharko liratekeen ikusteko.

3. E.E. Uztarrozeko zerbitzuak sustatzea.

- **Adierazlea:** Enplegu banatua ematen duten bi zerbitzu edo ekimen berri daude gutxienez.

■ **Ekintza operatiboak:**

4.3.1. Udalak komunikazioa eta inplikazioa sustatzea Cedernarekin, Ibarreko Batzordearekin eta Nafarroako Gobernuarekin, landa eremuko ekintzailetza bultzatu eta aholkatzeko.

4.3.2. Banaketa eta salmenta ibiltaria indartzea Erronkaribarren.

4.3.3. Kontsumo talde baten sorrera sustatzea (biltegiatzea eta guzti), elikagaiak eta beste produktu batzuk kontsumitzeko diren behar batzuk betetzeko.

4.3.4. Bertan bizi direnei lehentasuna ematea tokiko enpleguari dagokionez.

E.E.4. Turismo jasangarria sustatzea.

■ **Adierazlea:** Jarduera ekonomiko jasangarriak egiten dituzten pertsonen diru-sarrerak handitzen dira, bisitariak Uztarrozero iristearen ondorioz.

■ **Ekintza operatiboak:**

4.4.1. Zelai batzuk egokitzea kanpaldi libreko turismorako (Urona baloratzea)

4.4.2. Ostatu, aterpetxe, jatetxe baten sorrera sustatzea herrian.

4.4.3. Bideragarritasun azterlan bat egitea jatetxe-taberna-denda bat irekitzeko, etxez etxeko catering zerbitzua ere eskaintzeko.

LEHENTASUNEZKO EKINTZA OPERATIBOAK

3.1.: Etxebizitza

3.1.1. Herri guztiko katastroa eguneratzea

3.1.2. Etxebizitzaren inguruko aholkularitza zerbitzu bat izatea eskura, jendea programa orokorretan eta etxebizitza zaharrak birgaitzeko, berritzeko eta egokitzeko laguntzetan sartzen laguntze aldera.

3.2.1. Lege-esparruak aztertzea, Udalak eraikin hondatuak edo lursailak desjabetu ditzan, edota etxebizitzak tasen bidez zergapetu ditzan, ez badira erabiltzen edo ez badaude salgai edo alokagai.

3.2.4. Udalak bitartekaritza lana egitea etxaldeak edo bordak uzteko.

4. I.E: Enplegua

4.2.1. Zerbitzu anitzeko kontsumitzaile talde edo kooperatiba bat garatzeko aukera aztertzea (iturgintza, igeltserotza, pintura, etab.).

4.3.4. Bertan bizi direnei lehentasuna ematea tokiko enpleguari dagokionez.

3. ARLO ESTRATEGIKOA: EGUNEROKO BIZITZA

1.I.E.- MUGIKORTASUNA

1. E.E. Udalerrirako errepide bidezko sarbidea eta segurtasuna hobetzea.

- **Adierazlea:** Errepide bidezko sarbidean hobekuntzak egin dira.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 5.1.1 Herrira doan NA-140 errepidea hobetzea: bazterbideak egitea eta galtzadaren zabalera handitzea bi errei izateko.
 - 5.1.2. Finantzazioa bilatzea Irigoineko bidea egokitzeke.

2. E.E. Hiriguneko aparkalekuak arautzea eta hirigunetik kanpo diren aparkalekuak ugaritzea.

- **Adierazlea:** Herrian auto gutxiago dago aparkaturik
- **Ekintza operatiboak:**
 - 5.2.1. Lursailak bilatzea aparkatze eremuak handitzeko.
 - 5.2.2. Aparkatze eremuak zedarritzea, topaguneetan auto aparkaturik ez egoteko.

3. E.E. Mugikortasun publikoa edo partekatua sustatzea.

- **Adierazlea:** Mugikortasun partekatuko ekimen bat dago gutxienez abian herrian.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 5.3.1. Ibilgailuen erabilera partekatua erraztuko duten zerbitzuak: ibilgailuen erabilera partekatua erraztuko duten mugikorren aplikazioak bilatzea, hala nola KUDEA-GO.

4. E.E. Oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea hobetzea.

- **Adierazlea:** Gidatu ezin duten pertsonen oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko alternatibak dituzte.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 5.4.1. Irunberrira eta Zangozara zuzenean joateko garraio publikorik bideragarria den aztertzea, izapide eta zerbitzu batzuetarako sarbidea izateko.
 - 5.4.2. Etxez etxeko erosketa zerbitzua adinekoendako edo mugikortasun urritua dutenendako.

2.I.E.- AISIA, KULTURA ETA PARTE-HARTZEA

1. E.E. Udalerrria aisia eremu gisa sustatzea, naturari, kirolari eta kulturari loturiko jardueren bidez

- **Adierazlea:** 6.1. Gero eta bisitari gehiago datoz Uztarrozera eta asteburuko eta noizbehinkako maiztasuna finkatzea.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 6.1.1. Bide-sare zaharrak lehengoratzeko edota berriak sortzea
 - 6.1.2. Oinezkoendako eta txirrindulariendako bide bat egokitzea Izabarekin eta Otsagabiarekin.
 - 6.1.3. Mendiko bideak eta iturriak garbi mantentzea; ahal bada, auzolanen bidez.

2. E.E. Aisia eta kultura arloko jardueren dinamizazioa eta ekintza komunitarioa sustatzea udalerrian

- **Adierazlea:** Uztarrozen badira kultur eta aisia jarduerak, herriko bizilagun taldeek kudeatuak.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 6.2.1. Areto bat prestatzea (proiektagailua, aulkiak) filmak emateko, lan talde batek antolatutak.

3. E.E. Aurrez aurreko parte-hartze guneak sustatu eta garatzea herritarrendako, informazio eta parte-hartze bide erdi presentzialak barne.

- **Adierazlea:** Gutxienez batzarre bat egiten da urtean behin herrian Plan Estrategikoa ebaluatzeko eta hurrengo jarduketak erabakitzeko.
- **Ekintza operatiboak:**
 - 6.3.1. Behar edo interes zehatzei loturiko lan taldeen sorrera sustatzea baliabide eta espazio fisikoen bidez.
 - 6.3.2. Urtean behin, Udal Plan Estrategikoaren jarraipena egitea eta ekintzak lehenestea.

4. E.E. Estrategia komunitario bat garatzea Uztarrozeko adinekoak zaintzeko eta laguntzeko.

- **Adierazlea:** Gizarte zerbitzuekin hitz egitearen ondorioz atzemandako behar batzuei postu ordainduen edo boluntarioen bidez erantzuten ari zaie.

- **Ekintza operatiboak:**

6.4.1. Boluntario talde baten sorrera sustatzea adinekoek garraioan, erosketan eta zerbitzuak eskuratzeko dituzten beharretan laguntzeko.

3. I.E. TOPAGUNEAK ETA AZPIEGITURAK.

1. E.E. Egungo topaguneak hobetu eta handitzea

- **Adierazlea:** Topaguneetako bat gutxienez hobetu da eta orain ez dago autorik.

- **Ekintza operatiboak:**

7.1.1. Bainu eremua hobetzea, ibaiaren bi aldeetako ertzak konponduz eta komun publiko bat eginez.

7.1.2. Krutxalteako iturri ingurua topagune gisa moldatzea.

7.1.3. Haurrendako parke berri bat egitea

2. E.E. Hiri paisaia eragina duten elementuen kokapena edo diseinua egokitzea/birpentsatzea

- **Adierazlea:** Espazio publikoak zainduagoak daude

- **Ekintza operatiboak:**

7.2.1. Edukiontzi-estalkiak erabiltzea

7.2.2. Erabiltzen ez diren hiri lursail publiko eta pribatuak garbiak mantentzea, lorategiak egokituta.

7.2.3. Espazio publikoen erabilerak birplanteatzea (gutxiegi erabiltzen direla uste da), noizbehinka jarduerak egiteko edota erabilera iraunkorra emateko.

3. E.E. Estaldura mugikorrerako eta internet konexiorako sarea hobetzea.

- **Adierazlea:** Auzo guztiek estaldura ona dute mugikorrerako eta interneterako.

- **Ekintza operatiboak:**

7.3.1 Antena bat jartzea baloratzea herriaren behealdeko estaldura hobetzeko.

LEHENTASUNEZKO EKINTZA OPERATIBOAK

5I: Mugikortasuna

5.1.1 Herrira doan NA-140 errepidea hobetzea: bazterbideak egitea eta galtzadaren zabalera handitzea bi errei izateko.

L6: Aisia, kultura eta parte-hartzea.

6.2.1. Areto bat prestatzea (proiektagailua, aulkiak) filmak emateko, lan talde batek antolatutak.

5.7. Antolamendua eta egitura

Prozesua 5 urterako plan bat bezala pentsatu da, urtero eguneratzeko, eta urtero ere abian jartzen saiatuko diren ildo eta ekintza estrategikoak lehenesteko. Horrela, urteko ziklo bat dago, eta proposatu da ziklo hori hastea bizilagunen batzar ireki baten bidez urteko azken hiruhilekoan, lorpenak berrikusteko eta aurreko atalean aipaturiko ekintza operatiboak lehenesteko.

Bada, oinarri horren gainean, Uztarrozeko Udalak urteko lehen plana prestatuko du Udal Plan Estrategiko hau garatzeko.

2022ko EKAINA-AZAROA

2023. URTEA

2023ko AZAROA

Diagnosia eta
planaren
formulazioa

Udaleko plan
estrategikoa
2023-2027

Urteko
lehenespena
2023-2024

Abiaraztea

Urteko
ebaluazioa
eta
lehenespena

Parte-hartze
prozesua

Aurten, 3 ildo
estrategiko
lehenetsi dira:

Udal taldea +
bizilagunak

Bizilagunen
batzarra



Ingurumen
abertasuna eta
baliabideak



Etxebizitza



Enplegua





Proiektuaren 1. fasea



Proiektuaren 2. fasea



ORGANIZA / ANTOLATZAILEA:



SUBVENCIONA / DIRU-LAGUNTZAILEA:



COLABORAN / KOLABORATZAILEAK:

